



PROBA EPIKUTANEOAK

- Proba hauek **Dermatologiako kontsultan** egiten dira.
- Ezinbestekoa da adierazten dizuten egun guztietan joatea, adierazitako ordutegian.
- Proba honetan, adabaki batzuk jartzen dira bizkarrean, itsasgarriz erantsita:

Prozedura ez da mingarria.

▶ **Erreferentzia-dermatologoa: González Pérez doktorea bada.:**

1. hitzordua: ASTELEHENEAN ▶ Bizkarrean txaplatak jartzea.
2. hitzordua: ASTEAZKENEAN ▶ Adabakiak kentzea eta doktoreak lehen ikuskatzea egitea.
3. hitzordua: OSTIRALEAN ▶ Emaitzak.

▶ **Erreferentzia-dermatologoa: González Pérez doktorea EZ bada:**

1. hitzordua: ASTELEHENEAN ▶ González Pérez doktorearekin kontsulta.
2. hitzordua: ASTELEHENEAN ▶ Bizkarrean txaplatak jartzea.
3. hitzordua: ASTEAZKENEAN ▶ Adabakiak kentzea eta doktoreak lehen ikuskatzea egitea.
4. hitzordua: OSTIRALEAN ▶ Emaitzak.

Proba behar bezala egiteko, arau hauek iradokitzen dizkizugu:

- Adierazitako orduan joango zara Dermatologiako kontsultara, eta **ez** da beharrezkoa **baraurik** egotea.
- Lehenengo hitzordura joan aurretik, **dutxatu egingo zara**.
- **Ez** duzu **gorputz-kremarik** erabiliko itsasgarriak behar bezala itsasten direla bermatzeko.
- Bizkarrean ilea baduzu, bezperan **moztuko** duzu.
- **Ezin** izango duzu **bizkarra busti** azterketa amaitu arte, aste horretako ostirala arte, hain zuzen ere.
- Ariketa fisiko **bizia saihestuko** duzu eta, horrela, izerditzea, eta horrek adabakiak askatzea eragotziko du.
- Azkura sentitzen baduzu, saiatu **hatz ez egiten**.
- Medikuaren jarraibideak beteko dituzu: proben emaitza alda dezaketen **sendagaiak hartzea ekidindo** duzu.